



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

2016KO MEMORIA MEMORIA 2016

**Ikerkuntzarako
Zerbitzu Orokorrak**
SGIker
Servicios Generales de
Investigación

www.ehu.eus/sgiker

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGiker

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza

Errektoretza eraikina
Bizkaiko Campusa
Sarriena auzoa, zk.g.
Leioa, 48940 – Bizkaia
Tel.: 94 601 50 50
Webgunea: www.ehu.es/sgiker

Eskerrak:

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. EGEF eta Europako Gizarte Funtsa laguntza programak.
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.



Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorraren ikerkuntzaren laguntza unitateak, UNE-EN ISO 9001 eta UNE-EN ISO/IEC 17025 arauetan oinarritutako kalitate programa batean murgilduta daude.



ÍNDICE DE CONTENIDOS

	<i>Orrialdea</i>
1. Sarrera	4
2. Egitura antolatzailea	5
3. 2015-2018 Plan Estrategikoaren harira 2016an egindako jarduerak	6
4. SGiker kopurutan	15
4.1. Ikerketa taldeak eta kanpoko entitateak	16
4.2. Egindako zerbitzuak	20
4.3. Adierazle zientifikoak	21
4.3.1. SGiker zerbitzuak aipatzen dituzten argitalpen zientifikoak	21
4.3.2. SGiker zerbitzuen laguntzarekin egindako tesiak	23
4.3.3. SGiker zerbitzuen laguntzarekin ikerketa proiektuak	26
4.3.4. SGiker zerbitzuak biltzar, foro eta mintegietan	28
4.4. Internazionalizazioa	30
4.5. SGikerren prestakuntza eskaintza	32
4.6. Ikerketaren ebaluazioan parte hartzea	38
4.7. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak	39
4.7.1. Langileak	39
4.7.2. Langileen prestakuntza	40
4.7.3. Ekipamendu zientifiko eta teknologikoa	41
4.8. SGiker zerbitzuak hedabideetan	42
4.9. Ikertzaileen gogobetetasuna	44
4.9.1. Gogobetetasun inkestaren emaitzak	44
4.9.2. Prestakuntzarekiko gogobetetasunaren jarraipena	48
4.10. Emaitza ekonomikoak	50
5. 2017rako aktibitateen plana	51
I. eranskina. 2016an emandako ikastaroak	53
II. eranskina. Prestakuntzaren alderdi positiboak eta hori hobetzeko iradokizunak	55
III. eranskina. 2017. Urtearen tarifak	56

1.- SARRERA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) lehentasunezko egituratzat jotzen ditu Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGIker) bere antolamenduan; beraz, bere azpiegitura zientifiko-teknologikoa sustatzen du, eta, horretarako, aurrekontu partida espezifikoak bideratzen ditu.

SGIkerretako giza kapitala gai da lagin konplexuak aztertzeke Zientziaren eta Teknologiaren hainbat arlotan. Gainera, babesa ematen diote ikerketari proiektuak dirauen artean, eta lankideekin lankidetzan aritzeko malgutasuna dute, eskatutako ikerlanari erantzun betea emate aldera.

SGIkerretako teknikariek prestakuntza plan bati jarraitzen diote, ISO9001 kalitate arauaren mende, ahal den neurrian analisi metodo berrien eta emaitzak interpretatzeko softwareen ezagutza eguneratuta egon dadin.

Konbinazio horrek bidea ematen die hala unibertsitateko bertako ikertzaileei nola ingurune sozio-ekonomiko gainerako kideei azterketa konplexuagoak egiteko eta emaitza zehatzagoak lortzeko. Hain zuzen ere, horiek Zientziaren mugan jarduteko aukera ematen dute batzuetan.

Egoera horrek zuzeneko eragina izan du JCRn indexatutako argitalpen zientifikatuen kalitatea eta kopurua urtez urte areagotzean; zehazki, lehenbiziko kuartilean edo dezilean. Halaber, SGIkerren laguntzarekin defendatutako doktorego tesien, master lanen eta abarren kopurua areagotu dela ikusi da. Azken batean, adierazle horien bidez neurtzen da nazioartean ikerketan diharduten organismoen kalitatea.

SGIkerrek, berez dagozkien jardueraz gain, ikertzaileen kolektiborako prestakuntza espezifikoak ikastaroak antolatzen dituzte, eta onartze eta asebetetze maila oso handia da. Halaber, dibulgazio jardunaldiak antolatzen ditu unibertsitatean bertan, gazteenen ikertzaile ibilbidearen hasiera bultzatzeko.

SGIkerrek lankidetzan estuan dihardute ingurune sozio-ekonomikoarekin; izan ere, osatzen dituzten kideek beren I+G+b-a sendotu behar dute "4.0 industria" deitutako esparruan lehiatu ahal izateko.


Ekintza horiek SGIkerretako giza kapitalaren inplikazioaren eta ahaleginaren ondorio dira, baita Unibertsitateko beste sail batzuetakoarena, Eusko Jaurlaritzarena eta alorreko eskumenak dituzten ministerioena ere. Beren laguntza eskertu nahi diet: mila esker.

Maribel Arriortua irakaslea

SGIkerretako zuzendaria

2.- EGITURA ANTOLATZAILEA

SGIkerrek ondorengo egitura antolatzaileari jarraitzen diote (1. irudia).



1. irudia. SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren organigrama.

3.- 2015-2018 PLAN ESTRATEGIKOAREN HARIRA 2016AN EGINDAKO JARDUERAK

OE.1.- METODOLOGIA BERRITZAILEAK SORTZEA

L1.1 Zientzia Parkeko SGiker Unitateak (Martina Casiano Plataforma Teknologia eta Maria Goyri Animalia Bioteknologiako Zentroa)

2016. urtean amaitu da lehenengo fasean parkera lekualdatuko diren SGikerretako zerbitzu eta unitateetarako lokalen egokitzapena.

SGikerrek instalazio berriak ahalik eta lasterrena martxan jartzearen alde egin dute, lokal berrietan erositako ekipamendu berria sartuta eta martxan jarrita.

✓ "Martina Casiano" Plataforma Teknologikoa:

- Neurri magnetikoen unitatea: azken belaunaldiko SQUID motako magnetometroa.
- Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala: igortze atomikoko espektrometroa, induktiboki egokitutako plasmarekin (ICPAES); bestalde, TOC/N analizagailua lagin likidoetarako.

✓ "Maria Goyri" Animalien Bioteknologia Zentroa:

- Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan: Transmisioko Mikroskopia Elektronikoa.
- Genomika eta Proteomika zerbitzuak: prestakutnzako laborategia martxan jartzeko ekipamendu txikiaren erosketara.

L1.2. Ekipamendua eguneratzea

Ikerkuntzako Zerbitzu Orokorren prestazio handiko ekipamendu zientifikoa lortzeko, gehienbat nazio mailako zenbait lehiaketa deialdira jo da; halaber, berezko baliabideekin ere finantzatu da.

Aipatzekoa da SGikerrek deialdietara aurkeztutako eskabide guztiek aldeko ebaluazioa lortu dutela berriz ere.

FEDER laguntzen eta Ekonomia eta Lehiakortasuna Ministerioaren Ekintza Osagarrien deialdian 4 eskabide aurkeztu ziren, eta eskatutako ekipamenduaren balioaren % 50 finantzatu zen; horrenbestez, guztira 804.984,50 €-ko kofinantzazioa lortu zen, eta gainerako % 50a Kontratu-Programa baten bidez (624.984,50 €) eta SGikerren berezko funtsen bidez (180.000 €) finantzatu da.

UPV/EHUren Azpiegitura deialdian (ekipamendu txikia erosteko), SGikerrek 2 eskabide aurkeztu zituen. Bada, SGikerren ekarpenaren ehunekoak gainditu egin zuen deialdiak ezarritako gutxieneroa. Eskabideek aldeko ebaluazioa lortu zuten, eta guztira 85.500,00 €-ko finantzazioa lortu zen. SGikerren kofinantzazioa Kontratu-Programaren (70.000,00 €) eta berezko funtsen bidez (14.499,69 €) gauzatu zen.

Bizkaiko Analisi Zerbitzu Nagusiak zabaldu egin du zerbitzuen eskaintza, lagin likidoetarako TOC/N analizagailu bat erosita. Guztira 44.500 € ordaindu dira Kontratu-Programatik.

“Rita Levi” animaliategia honako hauekin hornitu da: kirofano bat, laborategi osagarri bat eta berbideratzeko gela bat. Guztira 83.889,90 € ordaindu dira bi esku hartzetan. Lehenengoa 80.168,44 €-an esleitu zen (Kontratu-Programaren bidez lortu ziren), eta bigarrena 3.721,54 €-an (SGikerren berezko funtsekin). Instalazio horretan ugaritu egin dira aireztatze unitateak (7), martxan jartze aldera. Guztira 90.000 € ordaindu dira Kontratu-Programatik.

SGikerren berezko funtsak erabili dira honako jarduera hauetarako:

- Ikerketara Aplikatutako Informatika Zerbitzu Nagusiko kalkulu intentsiboko esparrua handitzea (250.000 €).
- Feder nabeko instalazioen funtzionamendua hobetzea. Bertan daude Fitotron Zerbitzua eta Negutegia. Zehazki, gela teknikoa handitzeko proiektua onartu da, eta egungo hozkailuaren erez aire-ura darabilen hozkailua instalatzea, etekin handiagoa ateratzeko eta instalazioko gainerako gunetara sarbide hobe izateko (guztira 63.829,79 € ordaindu dira).
- Mekanizatu sistema esperimental berria, 9.000 €-ren truke, Laser Zerbitzurako. Ikertzaileen itzarote denbora nabarmen hobetzea ekarriko du.

L1.3. Langileei arlo/teknika/metodologia esanguratsuen inguruko prestakuntza ematea

2016. urtean 25 prestakuntza ikastaro eskaini eta gauzatu dira, eta guztira 289 pertsonak (174 emakumek eta 115 gizon) parte hartu dute. Horietatik prestatze bidean dauden ikertzaileak dira (52 emakume eta 28 gizon).

SGikerren 18 unitatek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute: guztira 33 prestakuntza eta ikerketa ekintza egin dira, UPV/EHUko 16 masterretan. Horien artean unibertsitate arteko 2 master daude: bat Kantabriako Unibertsitatearekin batera irakasten da, eta bestea Valladolideko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera.

2017. urtean 24 ikastaro berri eskaini dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira Biokontentzioko eta Biosegurtasuneko prestakuntza ikastaroa, Ekortze Mikroskopia Elektronikoko ikastaroaren edizio berria eta ISO 17025ri buruzko ezagutza partekatze ikastaroa (erreferentziazko araua da entseguetarako laborategietarako).

L1.4. Diziplina askoko zerbitzuak ematea eta teknika analitikoak txertatzea

Guztira UPV/EHUko 228 ikertzaile nagusi (146 gizon eta 82 emakume) artatu dira, eta 189 enpresa eta norbanako (kanpoko agenteak).

Guztira barneko 1887 eta kanpoko 604 zerbitzu eman dira.

Gainera, SGIkerrek laguntza eman diete atzerriko 14 erakunderi (horietatik 9 unibertsitateak dira). Horietatik guztietatik, Europar Batasunaz kanpoko herrialdeen esparruan, Brasilgo, Kolonbiako eta Suitzako erakunde banari eman zaio zerbitzu (horietatik bi, Brasilgoa eta Kolonbiakoa, unibertsitateak dira).

332 ikerketa proiektu babestu dira: 15 Europakoak dira, 112 nazionalak, 159 herrialdekoak eta 43 finantzazio pribatukoak.

Kontratu eta lankidetzak hitzarmenak sinatzea agente fidelizatuekin:

- ✓ Lankidetzak Ertzaintzako polizia zientifikoarekin, aholku gaietarako, analisiak egiteko eta prestakuntzarako.
- ✓ Lankidetzak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin, legez kanpoko substantzia adiktiboan laginei buruzko azterlan eta txostenetarako.
- ✓ Lankidetzak Krispiñako ur araztegiarekin, hondakin uretako kutsatzaileak aztertzeke.
- ✓ Hitzarmena Salamancako Centro de Láseres Pulsados Ultracortos zentroarekin, Laser laborategia jarraitutasunez erabiltzeko.
- ✓ Sarbide mugatuko 5 kontratu sinatzea eta berritzea, SGIkerren azpiegiturak erabiltzeko, ingurugiro sozio-ekonomikoko beste 5 erakunderekin.

L1.5. Ezagutza berritzailearen sistematizazioa eta kudeaketa

Unibertsitateaz kanpoko 36 pertsonak (25 emakumek eta 11 gizonek) parte hartu dute SGIkerrek eskainitako 8 prestakuntza ikastarotan.

UPV/EHUko 46 ikasleak (36 emakumek eta 10 gizonek) parte hartu dute SGIkerrek eskainitako 4 prestakuntza ikastarotan.

OE.2.- HAINBAT KALITATE ESTANDAR EZARTZEA

L2.1. ISO 9001 ziurtagiria duten unitate gehiago

SGIkerretako beste unitate bat sartu da AENOREk ematen duen ISO 9001 ziurtagiriaren irismenaren barnean: Arabako Animaliategia.

Bestalde, honako unitate hauen kalitate ziurtagiriaren berrebaluazio positiboa egin da, ISO 9001 arauari jarraikiz:

- Arabako Analisisien zerbitzu nagusia
- Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala
- Bizkaiko EMN unitatea
- Gipuzkoako EMN unitatea
- Polimeroak Karakterizatzeko Zerbitzua, Mikroskopia
- Raman-MAKLAB laborategi singularra
- X izpien zerbitzua: XPS unitatea
- X izpien zerbitzua: molekula eta materialak
- Bizkaiko animaliategia
- SGIkerren prestakuntza etengabeko ikastaroak

Beste unitate batzuetan txertatzeko prozesuari jarraipena emateko, Makroportaera-Makroegitura-Nanoteknologia Zerbitzua ziurtagiriaren irismenaren barruan kokatzeko lanak hasi dira, eta orobat egin da Zientziometria Unitateari dagokionez.

L2.2. ISO 17025 ziurtagiria duten saiakuntza gehiago

ISO 17025 arauaren arabeko analisi tekniken akreditazioaren berrebaluazio positiboa SGIkerren Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala.

Gainera, ahaidetasun biologikoko analisi tekniken erreferentzial horretan akreditazioa lortu da, Sekuentziazio eta Genotipatze Zerbitzuan (aitatasun probak).

Azkenik, lanak abiarazi dira ISO 17025 arauaren irismenaren barruko teknika eta ekipo berriak txertatzeko, hala nola ICP-MS ekipo berriak eta TOC teknikaren bidez lagin urtsuetan karbono organiko guztia aztertzeak.

L2.3. SGIkerretara egokitzen diren ISO 16555-1 espedientearen alderdiak txertatzea

Jarduketa lerro honetan, oraindik ere zehazteko dago IEren Zuzendaritza bakoitzak zer-nolako arduraren duen ISO 16555-1 Exp- arauan jasotako I+G+b-ko prozesuak kudeatzeko. Alabaina, SGIkerreko teknikariek berdin-berdin parte

hartu dute zaintza teknologikoko jarduerak egiteko eta euren espezializazioko azpiegitura eta teknika berrienak ezagutzeko biltzar, mintegi eta bileretan.

L2.4. Zerbitzuen Gutuna egitea

2016. urtean onartu du UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiak Raman-MAKLAB zerbitzu karta. Gainera, lehenengo urteko jardueraren jarraipen adierazleak neurtu dira. Orobat, XPS unitatean zerbitzu karta berria osatu da.

Jarduera horietan aurrera egiten jarraitzeko, beste bi zerbitzu karta egitea aurreikusi da: Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentralarena eta Polimeroen Karakterizazio Zerbitzua (Mikroskopia).

L2.5. Unitate guztien administrazio kudeaketa errazteko eta estandarizatzeko "Enterprise Resource Planning" (ERP) bat garatzea

Erabiltzailearen modulua garatu da eta, gaur egun, plataformaren profil teknikoa eta super-administratzailearen diseinua eta maketazioa lantzen ari dira.

OE.3.- LANKIDETZA SAREAK UGARITZEA

L3.1. Beste ikastegi batzuetako egonaldien edo harreraren bidez prestakuntza espezifikoko jarduerak indartzea

Berriazko gonbita SGIkerretako egoera solidoko RMNko teknikariari, honako hitzaldi hau emateko: "Characterization of cider apples juices using 1H spectra shift". Zehazki, Mexikoko Universidad Autónoma Metropolitana unibertsitateko graduondoko III. Simposio de Resonancia Magnética simposioan eman zuen, 2016ko urtarrilaren 18tik 22ra bitartean.

Astebeteko egonaldia Salamancako Centro de Láseres Pulsados Ultracortos Ultraintensos (CLPU) zentroan (2016ko otsailaren 22tik 26ra bitartean). Laser Laborategiko teknikari batek egin zuen egonaldia, pultsu ultralaburren filamentazioaren esparruan trebatzeko.

Astebeteko egonaldia Aragoiko Instituto Universitario de Investigación en Nanociencia (INA) institutuan, Zaragozan (2016ko maiatzaren 23tik 27ra bitartean). Mikroskopia: UPV/EHUko Polimeroen Analisia zerbitzuko teknikari batek egin du egonaldia, kriotomografia teknika optimizatzeko, lan metodoaren berri izateko eta software espezifikoarekin datuak lantzeko.

Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentralak AEOko XIX. Ejercicio de Intercomparación ariketan lortutako emaitzak zabaltzea. Bartzelonako Unibertsitateak antolatu zuen eta Murtzian egin zen, 2016ko ekainaren 2an eta 3an.

Institutional Biocontainment Resorces-ek gonbidatuta, SGIkerren koordinatzailea biosegurtasunari eta biokontentzioari buruzko prestakuntza batera joan da. Zehazki,

Texas Branch Unibertsitateko (Estatu Batuak) Galveston National Labeko Keiller eraikinean egin zen, 2016ko ekainaren 6tik 10era bitartean.

Laserreko teknikari batek CLPUK Salamancan antolatutako kanpaina esperimentalean parte hartu zuen, 2016ko uztailaren 18tik 22ra eta abenduaren 12tik 16ra bitartean. Helburu zuen huts diferentzialaren eta sortak hutsean zabaltzearen inguruko ezagutza areagotzea, laserra-molekula interakzioaren simulazio metodologiak ezagutzea eta CLPUK segurtasun gai batzuk kanpoko erabiltzaileekin nola kudeatzen dituen ezagutzea (segurtasun neurriak, komunikazioa, sartzeko formularioak...).

Jardueretan parte hartzea, bokazio zientifikoa sortzeko. Honako hiru tailerrak eman dira: "Técnica forense", "Accidente medioambiental" eta "Cómo sobrevivir en una isla". Askotariko diziplinak nahastuta eman dituzte SGikerretako 6 unitatek Bizkaiko Campusean, eta guztira Bilboko La Salle ikastetxeko DBHko 3. mailako 10 ikasle bertaratu dira (6 neska eta 4 mutil).

Guztira 7 ikasle (3 neska eta 4 mutil) hartu dira goi mailako prestakuntza moduluetatik, beren prestakuntza lantokietan praktikak eginez osa ditzaten (3 hilabeteko egonaldiak). Ikasle horien erreferentziako ikastetxeak (dagozkien hitzarmenak sinatu dituzte) dira Tartanga LHIIa, Elorrieta Erreka Mari LHIIa eta, aurten lehenengoz, San José de Calasanz LHIIa.

Irakasle tutoreei aurkeztea Lantokietako Prestakuntza Programan (LPP) hartutako ikasleen praktiken amaierako memorian 2016ko maiatzaren 18an egindako dibulgazio jardunaldi baten bidez.

Ikerkuntzako Errektoreordetzak italiar langile bat (Triesteko Unibertsitatea) hartu zuen, AZP, Erasmus + truke programarekin bat, 2016ko apirilaren 25etik 29ra bitartean. Zehazki, unibertsitateetako Ikerketa Zerbitzu Orokorren funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko informazioa jaso zuen.

Bizkaiko Animaliategiak Innobasquek antolatutako FLL Euskadin (Berrikuntza Eskola) parte hartu zuen, "Animal Allies" erronkari helduta, "La ética en la investigación con animales" jarduerarekin.

Lankidetzaz Bizkaiko Análisi Zerbitzu Zentralarekin Bilboko itsasadarreko uraren kalitatea aztertzeko eta kontrolatzeko lanetan. ELHUYAR programaren baitan gauzatu dute Sestaoko Amor Misericordioso Ikastetxeko ikasleek.

OE.4.- ZIENTZIA KOMUNIKAZIORAKO KANALAK HOBETZEA. SGIKER MARKA INDARTZEA.

L4.1. Biltzarretan parte hartzea zientzia ekarpenak eginez, eta barneko zein kanpoko ikertzaileentzako workshopak antolatzea

Ikerketara Aplikatutako Informatika Zerbitzuko (Kalkulu Zientifikoa) teknikariak "Internal EHU/UPV Seminars in Biosciences and Biomedicine" mintegian parte hartzea, 2016ko otsailaren 4an, Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Honako hitzaldi hau aurkeztu zuten: "An introduction to High Performance Computing and its applications in Bio/Med Sciences".

"10 consejos para mejorar tu trabajo de fin de grado" tailerra antolatzea, 2016ko otsailaren 28an, UPV/EHUko graduetakoko ikasleentzat. 8 ikaslek hartu dute parte.

"Medical Devices: de la I+D al mercado" jardunaldia antolatzea, 2016ko apirilaren 18an. Telstar, Life Science Solutions enpresak eman zuen, eta guztira UPV/EHUko barneko zein kanpoko 22 ikertzailek hartu zuten parte.

Kartografia eta Geografiako Informazioko Sistemen Zerbitzuak "Geologia Araba 16"-n parte hartzea, 2016ko maiatzaren 7an, "Grandes saltos de agua alaveses: evolución del relieve" jarduerarekin.

Tailerrak ematea UPV/EHUko SAE-HELAZek eskatutako seiurtekoen eskabideak prestatzeko. Zehazki, 2016ko urrian egin ziren hiru campusetan. II kolektiboko 85 pertsonak parte hartu zuten.

Ikerketara Aplikatutako Informatika Zerbitzuko (Kalkulu Zientifikoa) teknikarien partaidetza Errioxako Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatearen (FCT-UR) Zientiaren Astean, 2016ko azaroaren 15ean.

Bizkaiko Animaliategiaren arduradunak Red Olfativa Española (ROE) sarearekin lankidetzan, "Oler y saborear con el cerebro" tailerra gauzatzeko, 2016ko azaroaren 18an Valdepeñasen (Ciudad Real). Jarduera hori "Ciudad Ciencia" zientzia dibulgazioko programaren barruan antolatu zen, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) kontseiluak eta "La Caixa" gizarte langintzak bultzatuta.

12 kongresu eta biltzar zientifikotan parte hartzea, poster eta hitzaldiekin. Banaka xehakatu dira memoria honen 4.3.4 atalean (SGIker zerbitzuak biltzar, foro eta mintegietan).

L4.2. Beharra duten unitateak indartzeko difusio planak garatzea

Bizkaiko Animaliategian jardunaldia antolatzea animaliak berbideratzeari buruz. Belén Pintado Sanjuanbenito doktorea aritu zen hizlari: Centro Nacional de Biotecnología (CSIC, Madril) zentroko Transgenesis Unitateko zientzia arduraduna da. Hitzaldia 2016ko maiatzaren 25ean egin zen, eta 19 pertsona bertaratu ziren parte

hartzera (AZP eta Ilak). Hitzaldiaren helburua zen informazioa ematea "Rita Levi" animaliategi berrian animaliak mantentzeari buruz.

L4.3. SGIkerrek zientzia ekoizpenean laguntzen duelako (ekarpenak, jabetza intelektuala...) berriazko aitorpena indartzea

2016an 374 zientzia artikulua argitaratu ziren SGIkerrek zuzenean aipatuta. 2004az geroztik 2.562 artikulua metatu dira.

Doktorego tesien kopuruari dagokionez, 2016. urtean 85 tesi defendatu ziren SGIkerretako azpiegituraren eta langileen laguntzarekin. Horietatik guztietatik 59 nazioartekoak izan ziren.

L4.4. Komunikabideetan agertzea

Prensa idatzian 7 artikulua argitaratzea SGIkerretan egindako jardueren eta analisien inguruan. Halaber, telebistan 4 erreportaje eman dira, eta horietatik nabarmentzekoak dira Teknopolisekin lankidetzan egindakoak.

L4.5. Ekipamendu berria aurkezteko jardunaldiak

Bizkaiko Animaliategian (Medikuntza Fakultatea) jardunaldi bat egitea, ikertzaileek aurrez aurre ezagut dezaten "Rita Levi" animaliategi berriaren funtzionamendua. Jardunaldia 2016ko maiatzaren 25ean egin zen, eta parte hartzaileei gonbita egin zitzaizen ekarpenak egiteko, instalazio horren errendimendua ahalik eta gehiena optimizatzeko.

SGIkerren aurkezpenak Zientzia eta Teknologia Fakultateko V. Ikerketa Jardunaldietan (2016ko apirilaren 6an eta 7an egin ziren). SGIkerretako zerbitzu eta unitateek 2 poster aurkeztuta hartu zuten parte.

L4.6. Hain ustiatuta ez dauden zientzia arloetako eta gorabidean diren zientzia arloetako prestakuntza eskaintza eguneratzea

Ikerketari laguntzeko tailer eta jardunaldiak antolatzea eta/edo ematea:

- ✓ Tailerra: "Diez consejos para mejorar tu trabajo de fin de grado". 2016ko otsailaren 18an eman zen, Zuzenbide Fakultatean, Gipuzkoako Campusean, UPV/EHU. 8 emakume bertaratu ziren.
- ✓ Ikerketa lanean hasteko tailerrak, Doktorego Eskolarako. 2016ko apirilaren 4an eta 11n egin ziren, eta 29 pertsonak parte hartu zuten (18 emakume eta 11 gizon).

- ✓ Saioa Erizaintzako inpaktu adierazleei buruz, Erizaintzako Irakasleen Jardunaldietan. 2016ko urtarrilaren 12an izan ziren, Leioako Erizaintza Eskolan, eta 40 pertsona bertaratu ziren (38 emakume eta 2 gizon).

OE.5.- SGIKERRETAKO LANGILEEN GAITASUNAK AREAGOTZEA

L5.1. Urteko prestakuntza plana mantentzea

SGIkerretako langileek guztira 47 prestakuntza jardueratan parte hartu dute 2016an; zehazki, 135 parte hartze izan dira prestakuntza ikastaroetan.

L5.2. Teknikarien etengabeko prestakuntza

SGIkerretako langileek 1.272 trebakuntza ordu jaso dituzte guztira; hau da, SGIkerrei atxikitako pertsona bakoitzak 24 ordu egin ditu, lanaldiaren % 1,31.

L5.3. Barne prestakuntzako prozesuak

SGIkerretako 14 teknikaririk ikasle gisa parte hartu dute SGIkerrek antolatu eta emandako 6 prestakuntza jardueratan.

4.- SGIKER KOPURUTAN

Zehazturiko aginte taulan, hurrengo atalen bidez, informazio esanguratsua eta egindako inbertsioen eraginkortasunaren joera azaltzen da.


Lortutako datu eta mugarriak aztertutako adierazle jakin batzuetatik atera dira:

- 4.1. Ikerketa taldeak eta kanpoko entitateak
- 4.2. Egindako zerbitzuak
- 4.3. Adierazle zientifikoak
- 4.4. Internazionalizazioa
- 4.5. SGIkerren prestakuntza eskaintza
- 4.6. Ikerketaren ebaluazioan parte hartzea
- 4.7. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak
- 4.8. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak hedabideetan
- 4.9. Ikertzaileen gogobetetasuna
- 4.10. Emaidza ekonomikoak

4.1. IKERTALDEAK ETA KANPOKO ERAKUNDEAK


UPV/EHUko ikertzaileak

UPV/EHUko ikertzaile nagusi (IN) gutxiagok erabili dituzte SGIkerretako unitateek emandako zerbitzuak. 2. irudian ikus daitekeenez, 228 erabiltzaile izan dira guztira, 2015ean baino 25 gutxiago. Emakume ikertzaileetan gertatu da beherakada handiena (%11); gizonen kopurua, berriz, % 9 txikitu da. Dirudenez, ikerketa proiektu gutxiago eman izana eta erretiroengatik bajak izan dira emaitza horren arrazoi nagusiak.



2. irudia. 2012-2016 arteko barne ikertzaile nagusien (IN) kopurua.

Bestalde, 2016. urteko ikertzaileen genero banaketa ere jaso da (3. irudia).



3. irudia. 2016ko erakundeko ikertzaileak, generoaren arabera.


Kanpoko erakundeak eta partikularrak

UPV/EHUtik kanpo eskatu diren lanei dagokienez, 189 kanpoko erakundek eta partikularrek eskatutako 604 zerbitzu eman dituzte SGikerrek 2016an (1. taula). Lehen sailkapena dela eta, 131 enpresak dira; 541, emandako zerbitzuak; 58, partikularrak; eta 63, emandako zerbitzuak (4. irudia).

Azpimarratzekoa da 2015. urtean lortu zela zerbitzuak eskatzen zituzten atzerriko erakundeen kopuru handiena; aitzitik, 2016. urtean areagotu da gehieneko kopuru historikora iristeraino erakunde guztien kopurua.


PERTSONA FISIKOAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK	ERAKUNDEAK	ZERBITZUAK
Erakunde pribatuak	72	267
Erakunde publikoak	59	274
Pertsona fisikoak	58	63
Totala	189	604

1. taula. Erabiltzaileak eta prestatutako zerbitzuak.




4. irudia. Kanpoko eskatzaileek (enpresek eta partikularrek) 2012-2016 artean izandako bilakaera.

5. irudian, barne eta kanpo eskatzaileen kopuruaren arteko lotura erakusten da, eta 6.ak, berriz, SGikerretako arloek prestatutako erakundeen eta zerbitzuen arteko banaketa jasotzen du.



5. irudia. Barneko eta kanpoko eskatzaile kopuruaren arteko proportzioa.



6. irudia. SGIkerretako arloek prestatutako erakundeen/zerbitzuen banaketa.

Bestalde, 2. taulak kanpoko erakundeen jatorri geografikoa eta zerbitzuak eskatu dituzten unibertsitateen kopurua erakusten du.

JATORRIAREN ARABERA	ERAKUNDEAK / ZERBITZUAK	UNIBERTSITATEAK / ZERBITZUAK
EAEkoak	66/405	-/-
Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoak	51/105	19/37
Italia	5/10	4/5
Frantzia	2/9	-/-
Errezuma Batua	2/5	1/4
Portugal	1/2	1/2
Suitza	1/2	-/-
Austria	1/1	1/1
Kolonbia	1/1	1/1
Brasil	1/1	1/1
Totala	131/541	28/51

2. taula. Kanpoko unibertsitateen jatorria (partikularrak alde batera utzita), unibertsitateak adierazita.


Azkenik, 3. taulan kanpoko erakundeen tipologia adierazten da. Aintzat hartu behar da erakunde batzuk sailkapen batean baino gehiagotan daudela.

ERAKUNDE MOTAREN ARABERA	ERAKUNDEAK
Unibertsitateak	28
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen erakundeak	24
Ikerketa zentro publikoak	3
Fundazioak	34
Sozietate mugatuak	24
Sozietate anonimoak	22
Administrazio publikoak	16
Kooperatibak	4
Aldi baterako enpresa elkarteak , ABEE	3

3. taula: Kanpo erakunde erabiltzaileen tipologia.

4.2. EMANDAKO ZERBITZUAK

2016an, guztira, 1.887 zerbitzu eman zaizkie UPV/EHUko ikertzaileei, eta 604 zerbitzu kanpoko erakunde eta pertsoneri (fakturak igorrita). 7. irudian, zerbitzuok 2012. urtetik izandako bilakaera ikus daiteke.



7. irudia. Emandako zerbitzuen kopuruaren bilakaera.

2004-2016 artean, SGIkerrek 23.351 zerbitzu eman dizkiete ikertzaileei guztira.

4.3. ZIENTZIA ADIERAZLEAK


SGIkerrek oinarrizko laguntza ematen diote Euskal Herriko erakunde akademiko nagusiaren kanpoan zein barruan egiten den ikerkuntzari. Horrela, zientzia argitalpenak, doktorego tesiak, ikerketa proiektuak, eta unitateetako teknikariek parte hartu duten biltzar, foro eta mintegiak adierazle garrantzitsuak dira SGIkerrek ekitaldi bakoitzean izan duten zeregina neurtzeko.

4.3.1. SGIKERREN AIPAMENA DUTEN ZIENTZIA ARGITALPENAK

Nabarmendu behar da azken bost urteotan argitalpen gehiago atera direla SGIkerretako unitateen babesarekin; zehazki, 2014-2016 artean, 2011-2013 aldiarekin konparatuta, % 4 areagotu da zientzia ekoizpenaren bolumena. 2016an erregistraturiko 374 argitalpenen kalitateari dagokionez, azpimarratzekoa da nabarmen gora egin duela lehen eta bigarren kuartileko inpaktu handiko aldizkarietan argitaraturiko ekarpenen ehunekoak (4. taula, 8. irudia).

	Q1	Q2	Q1+Q2
2013	68,55	25,47	94,03
2014	69,40	24,91	94,31
2015	72,50	24,17	96,67
2016	74,18	20,11	94,29

4. taula. Argitalpenen ehunekoak, kuartilen arabera.




8. irudia. SGIkerrek babesturiko eta Q1 eta Q2 inpaktuko aldizkarietan kaleraturiko argitalpenen ehunekoak.

Jarduketa lerro hau oso garrantzitsua da; izan ere, helburu du langileen, azpiegituren eta beste zientzia baliabide batzuen deialdi publikoetan lehiatzen jarraitzeko curriculum sortzea eta emaitza onak lortzea.

Bat etorri gure ekoizpen zientifikoko datu basetik ateratako informazioaren arabera (iturriak: Web of Science —WOS—, Thomson Reuters-ena; Scopus, Elsevier-ena; Google Scholar; eta zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikoak), SGIkerrek 2.562 eman dituzte egin dute 2004. urteaz geroztik.


Jarraian, 9. irudian, SGIkerrek azken zazpi urteotan lagunduriko zientzia argitalpenen kopurua azaltzen da..



. irudia. SGIker zerbitzuen ekarpena izan duten argitalpenak 2012-2016 aldian.
 * 2016.urteari dagokion publikazio kopurua behin behinekoa da, data basetan, erregistro berriak, etengabe sartzen dira eta (2017ko apirilean eguneratua).

Zientzia ekoizpenari buruzko gure datu basetik ateratako informazioaren arabera, eta Researcher ID programaren azken eguneratzearen arabera, SGIkerrek, 2004-2016 artean, *Journal Citation Reports* (JCR) argitalpenean bildutako inpaktu faktorea duten aldizkarietako 2.562 argitalpenetan izan dute aitorpena. Horietatik guztietatik, gaur-gaurkoz, WOSEk 1.546 artikuluren aipamen bibliometrikoaren informazioa ematen du. Artikulu horiek, bada, 25.303 aipu sortu dituzte: batez beste, 19,5 aipu artikulu bakoitzeko, eta 59ko *h* inpaktua. Adierazleok izugarri areagotu dira 2015ean bildutako datuen aldean; urte hartako aipuak 21.867 izan ziren guztira, hau da, batez beste 14 aipu artikulu bakoitzeko eta 51ko *h* inpaktu faktorea.

10. irudian ikus daiteke adierazle bibliometriko horien adibide bat: SGIkerren lagunduta egindako ekarpenak, gaien arabera sailkatuta.



10. irudia. WOSeko zientzia ekoizpenaren banaketa, 20 artikulutik gora dituzten gaien arabera.

Lan honi esker, gainera, prestakuntza handiko langileak eta azpiegitura lehiakorra dituzten zerbitzuen laguntzarekin lortutako kalitatezko emaitzen gaineko ikuspegi gardena eta osoa eskaintzen zaio komunitate akademikoari.

Webgune honetan dago Researcher ID atarirako esteka zuzena:


<http://www.researcherid.com/rid/A-5759-2012>.

4.3.2. SGIKERREK LAGUNDUTAKO DOKTOREGO TESIAK

Ekipoak eta teknikariak finantzatzeko deialdi publikoetan eskaturiko adierazleak eta kalitate irizpideak ezarri ditugunez, kontu handiz egin dugu SGIkerretako zerbitzu eta unitateen baliabideak erabili dituzten eta UPV/EHU n egin diren doktorego tesien gaineko jarraipena.

Horren emaitza gisa, 2016an egindako 85 doktorego tesi identifikatu dira; horietatik 10 kanpoko erakundeekin batera zuzendu dira, eta guzti-guztiak UPV/EHU n defendatu dira. Hala, tesien kopurua zertxobait txikitu da 2015eko ekitaldiaren aldean, orduan 90 tesi egin baitziren.

Dena den, murrizte txiki hori gertatu den arren, SGIkerren laguntzarekin eginiko doktorego tesien kopuruak gorako joerari eusten dio oro har (11. irudia).




11. irudia. Azken 5 urteotan lagundutako doktorego tesien banaketa eta joera.

Beraz, oro har, SGIkerretako zerbitzuren eta unitateren baten laguntzarekin eginiko tesien ehunekoak, UPV/EHUⁿ irakurritako tesi guztien artean, % 16 izan da 2016. urtean; hots, beherakada txikia gertatu da aurreko urtearen aldean, ia % 22 izan baitziren. Nolanahi ere den, alde batetik, Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen, eta Artearen eta Giza Zientzien esparruan tesi gehiago defendatu izanaren ondorio da hori; bestalde, aurreko programetako tesiak defendatu dira (zehazki, araudi berriari jarraikiz epemuga 2016. urtean zutenak).

Gainera, 2016an, SGIkerretan egindako doktorego tesien % 69,4 nazioartekoak izan dira; UPV/EHUⁿ defendaturiko tesi guztietatik, berriz, % 29,5 izan dira nazioartekoak.

Zientzia esparruei erreparatuta (12. irudia), ikusi da 2016an egindako tesi gehienak Zientzia Esperimentalen arlokoak direla (% 65,8); ondoren, Osasunaren Zientzien arlokoak (% 22,3) eta Ingeniaritza eta Arkitekturaren arlokoak (% 11,7).



12. irudia. SGIkerrek lagundutako doktorego tesien banaketa, ezagutza arloen eta generoaren arabera.

2016an irakurritako eta SGIkerrek lagundutako 85 tesietatik, emakumeek 51 defendatu dituzte, eta gizonek, berriz, 34. Zientzia arloaren araberrako banaketa 12. irudian ageri da.

SGIkerrek lagundutako doktorego tesi guztietatik 10 UPV/EHUz kanpoko erakundeekin kozuzendu dira (horietatik 3 inguruko agenteekin: Ik4 Fundazioa, CIC biomaGUNE eta BCMaterials Fundazioa). Bat Granadako Unibertsitateko ikertzaileek zuzendu dute, eta gainerakoak honako unibertsitate hauek: Tokioko Unibertsitatea, Cambridgeko Unibertsitatea, Pau et des Pays de L'Adour Unibersitatea, Friburgoko Unibertsitatea eta French National Institute for Agricultural Research (INRA). 10 horiei gehitu behar zaizkie BCMaterials Fundazioko, Osakidetzako eta Basque Centre for Applied Mathematicseko (BCAM) kideek eskusiboki zuzendutako beste 3.

4.3.3 IKERKETA PROIEKTUAK

2016. urtean, SGikerrekin lan egin duten 228 ikertzaile nagusiek 329 ikerketa proiektu zuzendu dituzte guztira, eta horietatik 286 finantzazio publikoko eskualdeko, nazioko eta nazioarteko proiektu gisa sailkatu dira (5. taula). Gainerako 43 proiektuak finantzazio pribatukoak dira: 38 enprekin eginiko kontratuak dira, 2 erakunde pribatuen deialdiak eta 3 hitzarmenak (6. taula).

IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PUBLIKOA

	2012	2013	2014	2015	2016
NAZIOARTEKOAK	7	13	11	10	15
NAZIONALAK	107	120	97	100	112
ESKUALDEKOAK	292	263	266	210	159
GUZTIRA	406	396	374	320	286

5. taula. SGiker zerbitzuen laguntzarekin egindako finantziazio publikoko ikerketa proiektuak.


IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PRIBATUA

	2012	2013	2014	2015	2016
ENPRESEKIN EGINDAKO KONTRATUAK	24	28	27	30	38
ERAKUNDE PRIBATUEN DEIALDIK	2	4	4	0	2
EKINTZA BEREZIAK	2	1	0	0	0
HITZARMENAK	0	0	2	3	3
GUZTIRA	28	33	33	33	43

6 taula. Finantziazio pribatua jaso duten proiektuak.

13. irudian zerbitzu eta unitate bakoitzak lagundutako eta UPV/EHUri emandako ikerketa proiektuen kopurua agertzen da, erakundeka antolatuta.

Irudi horretan 660 proiektu daude guztira; hots, hainbat alditan proiektu berbera babestu dute zenbait zerbitzuek. Horrenbestez, argi geratzen da lotura dagoela unitateen eta euskarri ematen zaien proiektuen diziplina askotarikotasunaren artean.



13. irudia. Babesa eman zaien ikerketa proiektuen kopurua.

4.3.4. SGIKERREK BILTZAR, FORO ETA MINTEGIETAN IZAN DUTEN PRESENTZIA

2016. ekitaldian, aholkulari zientifikoek eta teknikariek partaidetza aktiboa izan dute: guztira, ekarpen zientifikoak egin dituzte 12 biltzar, jardunaldi, mintegi eta workshopetan.

Ondoren, kronologikoki zerrendatzen dira 12 parte hartzeak:


- ✓ An introduction to High Performance Computing and its applications in Bio/Med Sciences. *Internal EHU/UPV Seminars in Biosciences and Biomedicine*. Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Leioa, 2016ko otsailaren 4a.
- ✓ Optimization and validation of sample preparation procedures for high throughput untargeted liver lipid profiling by UHPLC-ESI-Q-TOF MSE. *Sociedad Española de Bioquímica Y Biología Molecular*. Salamanca, 2016ko irailaren 5etik 8ra bitartean.
- ✓ Análisis de la producción científica de la UPV/EHU en el Emerging Sources Citation index (ESCI). *XIII Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la educación superior (FECIES)*. Granada, 2016ko ekainaren 30etik uztailaren 2ra bitartean.
- ✓ El apoyo de los Servicios Generales de Investigación (SGIker) de la UPV/EHU en la generación de vocaciones científicas. *XIII Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la educación superior (FECIES)*. 2016ko ekainaren 30etik uztailaren 2ra bitartean.
- ✓ Difusión de resultados de intercomparación del Servicio Central de Análisis de Bizkaia. *19 Ejercicio de Intercomparación de AEO. Universitat de Barcelona*. Murtzia, 2016ko ekainaren 2a eta 3a.
- ✓ General Research Services: X-Ray Unit. *The Spanish model of diffraction Services. MISCA*. Tenerife, 2016ko ekainaren 21a.
- ✓ Untargeted metabolomic study for identification of bioactive metabolites as potential health promoting agents in grape tissues. *12th Anual Conference of the Metabolomics Society. American Metabolomics Society*. Dublin, 2016ko ekainaren 27tik 30era bitartean.
- ✓ Partaidetza kanpaina esperimentalean, CLPUn. *Centro de Láseres Pulsados Ultracortos Ultraintensos, CLPU*. Salamanca, 2016ko uztailaren 18tik 22ra bitartean.
- ✓ Ultrafast excited state dynamics of size selected neutral molecular clusters. *XXI European Conference on Dynamics of Molecular Systems, MOLEC 2016*. Toledo, 2016ko irailaren 12tik 16ra bitartean.

- ✓ X izpien Zerbitzu Nagusia (SGIker, UPV/EHU). *Centro Nacional del Hidrógeno*. Puerto Llano, Ciudad Real, 2016ko urriaren 18a eta 19a.
- ✓ DNA Bankuaren Zerbitzu Nagusia. *XVII Jornadas de Investigación de OSI Araba. BioAraba eta Arabako Unibertsitate Campusa (UPV/EHU)*. Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 19a.
- ✓ Nanoparticle characterization by X-ray diffraction techniques. *Speech Invitation, NanoS&T-2016. BIT Group Global Ltd. Nano S&T-2016*. Singapur, 2016ko urriaren 26tik 28ra bitartean.

4.4.- INTERNAZIONALIZAZIOA

Hainbat adierazle hartzen dira kontuan SGIkerren jardueraren internazionalizazioaren islatzat. Adierazle horiek erakusten dute atzerriko zenbat erakunde dauden, nazioko erakundeen aldean; halaber, SGIkerrek babestutako nazioarteko tesien ehuneko azaltzen dute, UPV/EHU guztiko nazioarteko tesien ehuneko osoaren aldean.


Adierazle horiek honako irudi hauetan jaso dira:




14. irudia. Nazioko eta atzerriko erakunde kontratatzaileen bilakabidea.

JATORRIAREN ARABERA	ERAKUNDEAK	UNIBERTSITATEAK
Italia	5	4/5
Frantzia	2	-
Errezuma Batua	2	1
Portugal	1	1
Suitza	1	-
Austria	1	1
Kolonbia	1	1
Brasil	1	1
Totala	14	9


7. taula. Kanpoko erakundeen jatorrizko herrialdeak, unibertsitateak diren adierazita



15. irudia. Atzerriko erakundeen ehunekoaren bilakabidea, kanpoko kontratatzaile guztien aldean.



16. irudia. SGikerren babestutako nazioarteko tesien ehunekoaren erkaketa.



17. irudia. SGikerrek lagundutako eta beste herrialde batzuetako ikertzaileekin lankidetzan eginiko argitalpenak. 10 argitalpenetik gorako herrialdeak agertzen dira.

4.5.- SGIKERREN PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

Prestakuntza eta dibulgazio jarduerak gazte eta ikasleekin

2016. urtean, ondoz ondoko seigarren urtez, SGIkerrek 3 neska ikasle eta 4 mutil ikasle (7 guztira) hartu dituzte goi mailako prestakuntza moduluetatik, beren prestakuntza lantokietan egindako praktiken bidez osa dezaten (3 hilabeteko egonaldia). Ikasle horien erreferentziazko ikastegiak (dagozkion hitzarmenak sinatu dira) Goi mailako Lanbide Heziketako Tartanga Institutua, Goi mailako Lanbide Heziketako Elorrieta Erreka Mari Institutua eta Goi mailako Lanbide Heziketako San Jose de Calasanz Institutua dira.

Honako hauek izan ziren 5 unitateak:

- Sekuentziazioa eta Genotipo Azterketak: 1 emakume.
- Kalkulu Zientifikoko Zerbitzu Nagusia: 1 gizon.
- Kudeaketa Bateratuko Arloa: 2 gizon.
- Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala: 1 gizon.
- Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzu Orokorra: 2 emakume.

Egonaldiaren amaieran, ikasleek praktiken amaierako memoriak aurkeztu zizkieten programako irakasle tutoreei, 2016ko maiatzaren 18an eginiko dibulgazio jardunaldi baten bidez.

Bestelako dibulgazio eta prestakuntza modalitateak dira etorkizuneko gazte ikertzaileentzat antolatutako jarduerak (ikertzaile bokazioa sortzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle gazteen artean):

- Bizkaiko Animaliategiak FLL Euskadin (Berrikuntza Eskola) parte hartzea. Innobasque izan zen antolatzaile, "Animal Allies" erronkaren barnean, "La ética en la investigación con animales" jarduerarekin.
- 2016ko urtarrileko eta otsaileko hiru saiotan Bilboko La Salle ikastetxeko 10 ikasle (6 mutil eta 4 neska) hartu dira, eta 3 jarduera zientifikotan parte hartu dute: "Técnica forense", "Accidente medioambiental" eta "Cómo sobrevivir en una isla". Askotariko diziplinak baliatuta gauzatu dira SGIkerretako 6 unitatetan.
- Lankidetzan Bizkaiko Análisi Zerbitzu Zentralarekin Bilboko itsasadarreko uraren kalitatea aztertze eta kontrolatzeko lanetan. ELHUYAR programaren baitan gauzatu dute Sestaoko Amor Misericordioso Ikastetxeko ikasleek.

Aurreneko aldiz, Kimika Gradu ikasle batek Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralean egin du gradu amaierako lana.

Ikerketarako teknologiak: prestakuntza eskaintza


SGIkerren prestakuntza eskaintzari dagokionez, adierazi behar da UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtatu dela SGIkerren jarduera arlo guztietan egiten diren prestakuntza etengabeko ikastaroen diseinu, eskaintza, irakaskuntza eta ebaluazio prozesu guztia.

Eskaintzan irakatsitako ikastaroei dagokienez, 2016an 25 prestakuntza ekintza egin dira (8. taula).

IKASTAROEN ESKAINTZA ETA ESKAERA	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira emandako ikastaroak	27	22	18	16	25
Eskaintzako ikastaroak	21	18	16	16	19
Ikastaro bereziak	6	4	2	0	6
Eskaini eta eman ez diren ikastaroak	8 (27,6%)	5 (18,5%)	8 (30,7%)	7 (29,17%)	8(24,24%)

8. taula. Prestakuntza eskaintzaren adierazle nagusiak.

2016an emandako prestakuntzaren iraupen osoa 493 ordukoa izan da (333 ordu izan ziren 2015. urtean) (18. irudia).



18. irudia. 2012-2016 artean emandako Prestakuntza orduen bilakabidea.

2016. urtean 289 pertsona (174 emakume eta 115 gizon) aritu dira SGIkerretan prestakuntza hartzen, irakasleak, *senior* ikertzaileak, *junior* ikertzaileak, doktorego aurreko ikasle eta ikertzaileak, eta enpresetako langileak gehituta. Datu horiek 9. taulan ageri dira.

PARTE-HARTZAILEAK	2012	2013	2014	2015	2016
Parte-hartzaile kopurua	325	213	154	134	289
Eskaintzako ikastaroetakoak	301	192	146	134	167
Ikastaro berezietakoak	24	21	8	0	122

9. taula. SGIker zerbitzuen prestakuntza eskaintzako parte-hartzaile kopurua.

Aurten, Zientziometria Unitateak eskaera bidezko ikastaroa man du UPV/EHUko SAE-HELAZentzat. Guztira 85 irakasle eta ikertzailek hartu dute parte, eta hortik 2016. urte honetan nahierako ikastaroetan hainbeste partaide egon izana.

II. eranskinean dago unitateek 2016. urtean emandako ikastaroen laburpen bat. 2017rako prestakuntza eskaintza webgune honetan ikus daiteke:


<http://www.ehu.eus/es/web/sgiker/prestakuntza/prestakuntza-eskaintza>

Dibulgazio bisitak SGIkerretako unitateetara


UPV/EHUren ikusgaitasuna da helburu estrategikoetako bat. Irakasle eta ikasleek urtero bisitatzen dituzte SGIkerrak: ikasleak, ikertzaile gazteak eta ikertzaileak dira, oro har.

2016. urtean, SGIkerrek 37 bisita hartu dituzte guztira. Horien ondorioz, ikerketaren esparruarekin lotutako hainbat profiletako 431 pertsonak aurrez aurre ezagutu dituzte gure instalazioak, teknikak, ekipamenduak eta gure langileen kualifikazio handia. 431 pertsona horietatik 327k UPV/EHUrekin dute lotura, eta 104 kanpoko erakundeetakoak dira.

Hurrengo grafikoek islatzen dute azken bi urteotako bisitarien kopuruaren eta profil profesionalen bilakabidea (19. eta 20. irudiak).



19. irudia. Bisitari kopurua: urteen arteko bilakabidea



20. irudia. Bisitariaren profil profesionala 2016. urtean.


Era horretako interakzioari esker, ikerketaren mundua hurbiltzen diegu ikasleei, eta talentuaren kaptazioa sustatzen dugu, ikastetxeetan lortutako ezagutza osatzen dugu eta zerbitzuek ikertzaile eta teknologoei oro har eskaintzen dizkieten aukerak ezagutarazten ditugu.

Masterrak eta doktorego programak

2016. urtean, ezagutza zabaltzeko jardueren artean, SGIkerren 18 unitatek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute: guztira 41 prestakuntza eta ikerketa ekintza egin dira, UPV/EHUko 16 masterretan. Horien artean unibertsitate arteko bi master daude. Horietako bat Kantabriako Unibertsitatearekin egin da, eta bestea Valladolideko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (9. taula, 21. irudia):

<u>Izenburua</u>	<u>Arloa</u>	<u>Ikasturtea</u>
Material Berrien unibertsitate arteko masterra	Fisika, Kimika eta Materialak	2015/2016
Kimika Sintetiko eta Industrialeko unibertsitate arteko masterra	Fisika, Kimika eta Materialak	2016/2017
Analisi Forentseko unibertsitate masterra	Bizi Kalitatea eta Osasuna	2015/2016 y 2016/2017
Neurozientzietako unibertsitate masterra	Biomedikuntza	2015/2016
Biologia Molekularra eta Biomedikuntzako unibertsitate masterra	Biomedikuntza	2015/2016 y 2016/2017
Elikagaien Segurtasuna eta Kalitatea unibertsitate masterra	Elikagaien Zientzia eta Teknologia	2015/2016
Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia unibertsitate masterra	Ingurumena	2015/2016
Kuaternarioa, Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinazea unibertsitate masterra	Ingurumena	2015/2016 y 2016/2017
Enologia Berritzaileko unibertsitate masterra	Elikagaien Zientzia eta Teknologia	2015/2016
Ingeniaritza Biomedikoko unibertsitate masterra	Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	2015/2016
Material Berriztagarrien Ingeniaritzako unibertsitate masterra	Ingeniaritza eta Teknologia	2015/2016
Industria Ingeniaritzako unibertsitate masterra	Ingeniaritza eta Teknologia	2016/2017
Nautika eta Itsas Garraioko unibertsitate masterra	Ingeniaritza eta Teknologia	2016/2017
Ikerketa Biomedikoko unibertsitate masterra	Biomedikuntza	2015/2016
Material Berrietako unibertsitate masterra	Fisika eta Kimika	2015/2016 y 2016/2017
Kimika eta Polimeroetako unibertsitate masterra	Fisika, Kimika eta Materialak	2016/2017

9. taula. 2016an SGIkerrek parte hartu duten unibertsitate masterren zerrenda




21. irudia. Masterren urterik urteko banaketa, ezagutza arloen arabera.

4.6.- IKERKETAREN EBALUAZIOAN PARTE HARTZEA

SGIkerretako Zientziometria Unitateak laguntzetarako hainbat deialditan lagundu du 2016an zientzia ebaluazioaren esparruan, adibidez:

- UPV/EHUn doktoratu ondorengo prestakuntza programetan sartu artean, doktore berrien laguntzen deialdiak.
- Ikertzaile doktoreak UPV/EHUn espezializatzeko deialdiak.
- Irakasle-Ikertzaileen Errektoreordetzaren Dedikazio Akademiko Planaren (PDA)

Lehenbiziko jardueran profil eta curriculumen ebaluazioa egin da; hain zuzen ere, doktore berrien kontrataziorako laguntzak eskatu dituzten 83 pertsonen (57 emakume eta 26 gizon) zientzia-ekoizpena aztertu du unitateak. Zientzia arloen araberrako eskarien ehunekoak 22. Irudian ikus daitezke. Eskatzaileen % 61ek nazioarteko doktoretza eskuratu zuten gerora.



22. irudia: ebaluazioak zientzia-arloen arabera

Ikertzaile doktoreak espezializatzeko UPV/EHUn deialdiari dagokionez, 2016an orotara 119 eskatzailek (75 emakume eta 43 gizon) aurkeztutako gutxieneko zientzia-ekoizpena ebaluatu da Ebaluaziorako eta Prospektibarako Agentzia Nazionalera (ANEP) bidali aurretik.


Azkenik, Zientziometria Unitateak Irakasle-Ikertzaileen Errektoreordetzaren Dedikazio Akademiko Planaren (PDA) deialdian partehartzen du lehengo ediziotik, 2012. urtean. Partehartzea, Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari dagozkion apartaduen koordinazioan, azterketan eta erresoluzioan datza. Zientziometria unitatean, CNEAI-ren kriterioen arabera aurkeztutako, eta CIDI-ak ezagutzaren esparru guztietarako aprobata duen produkzio zientifikoa aztertzen da. 2012. urtetik 2016. urtera, produkzio zientifikoari, aldiskari zientifikoaren komite editorialetan partehartzeari eta kongresu zientifikoaren antolaketa komiteen kide izanaren kontziderazioari, dagozkion 3.480 eskaera aztertu dira.

4.7.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

4.7.1. LANGILEAK


2016. urtean, SGikerrek 2015. urteko langileei eta kontratuei eustea lortu dute.

23. irudian ikus daiteke egun kontratupean dauden langileen banaketa eta azken 5 urteotan izan den bilakaera.



23. irudia. SGiker zerbitzuetako langileen banaketa 2015ean.

